kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:02 Página 1

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2009ko azaroa - 89. zenb.

Egunkaria libre!

KALAPUTXI

Aintzane Basterretxea

musikari barruraino sartzen utzita

<ESKOLA 2.0 MARTXAN DA

>ESTRESARI AURREA HARTZEN

>OIHANA KORTAZAR TXAPELDUNAREKIN

>EHIZA GARAIAN, EHIZTARIAREKIN SOLAS

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:02 Página 2

Kantxa - Bokatak
Kazuelitak
Txokolatadak

MIRUMITZ
taberna

ospakizun herrikoiak
erreserbak eta informazioa: 688643180
hartuta ez dagoenean, kantxa guztientzat erabilgarri

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:02 Página 3

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan *Irakurleen eskutitzak* 5
Puri-purixan *Estresari aurrea hartu nahian* 6-7
Bi hitzetan eta komikixa 8-9-10
HITZA egunkaritik hartutakoak 11
Auzoz auzo *Pedro Agirrezabalarekin, ehizari buruz* 12-13
Karenka *Aintzane Basterretxea, musika barruraino* 14-15
Historixa *Mutrikuarrak ameriketara "pateran"* 16
Gizartia *Egunkaria libre!* 17
Kirola *Oihana Kortazar, nonnahi txapeldun* 18-19
Bertsuak *Bertso sariketak 25 urte* 20-21
Irakaskuntza *Eskola 2.0 programa abian da* 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak *Andra koadrillak lehen, eta lehenago* 25
Agendia *azaroa-abendua* 26

IRITZIXA

AURTEN BAI, ALA?

Ate joka dauzkagu Gabonak. Ate joka, beraz, gure futbol selekzioaren inguruko eztabaida. Hemen da berriro ere ika-mika. Aurten ere iazkoaren ildotik datorkigu. Denbora daramate aldeek hitz egiten. Hartueman bat baino gehiago ere izan da eta dirudienez laster ke zuria isurtzeko moduan izango dira 'euskal selekzioa' izenpean. Eztabaida saihesteko modurik onena omen da, bakarra agian.

Iaz eztabaidak ez zuen inor isilik laga. Euskadi ala Euskal Herria? Ezinbestean aukeratu beharrean omen ginen duela urtebete. Bakoitzak bere argudioak bota zituen orduan baten alde edo bestearen kontra. Batzuk San Mamesen hasi eta Amaiurren amaitu zuten, euren hautua arrazoitzeko. Beste batzuk, berriz, Anoetatik Larrinagako kartzelaraino joan ziren. Beste behin historiaren erabilera interesatua egin zen orduan, azken finean eztabaida ez delako semantikoa, politikoa baizik. Eta ez ahaztu orduan hauteskunde aurreko garaian ginela.

Geroztik, PSEren garaipenarekin, aldaketa haundiak izan dira eta gai honetan ere nobedaderik izan daiteke. Gaur egun itxuraz, agintariak eta jokalariak ados jartzeko prest omen daude; konponbide salomonikoa aurkitu omen dute. Ez Euskadi, ez Euskal Herria. Euskal selekzioa eta kitto!!! Horrek bakarrik bideratu ahal izango luke konponbide bat.

Patxi Mutiloa kirol zuzendari berriak federazioaren esku utzi du gaia. Federazioko presidente berriak, Santiago Arostegik, isilean darama gaia, zuzenean gainera. Jokalariek ez dute oraindik gaia aipatu. ESAITek ere ez du bere jarrera azaldu, hau idazterakoan behintzat.

Sakoneko eztabaidaren gakoa ez datza izenean, euskal selekzioaren ofizialtasunean baizik. Iazko idatzian jokalariek argi utzi zuten helburua ez zela urtean behin jokatzea, ofizialtasunaren aldeko urrats sendoak egitea baizik. Eta alde horretatik, ez dut uste 'euskal selekzioa' izenak auzia konponduko duenik, boterean dauden egungo agintariak ez baititut ofizialtasunaren aldekoak ikusten.

Agian aurten, Gabonetan, partidua izango dugu, baina euskal selekzioa ez da ofizialagoa izango horregatik. ✘

Txemi Galarraga

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:02 Página 4

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 46 11 11

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Itsas etxea.....943 60 34 00
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola.....943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Gasolindegia.....943 60 32 10
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**ean hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA eta Debabarreneko herrietara

Astegunetan: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era, orduro

ONDARROARA

Astegunetan: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA		DEBA – BILBO – DEBA	
Debatik	6:44-7:44-…-21:44	**Debatik**	6:43 -7:43 -…-20:43
Donostiatik	5:47-6:47-…-20:47	**Bilbotik**	6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira		Jai egunetan 8:43etan hasiko dira	

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik	6:43 / 7:43 / … / 21:43	Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik	6:13 / 7:13 / … / 21:13	Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako botikak (Mutriku eta Deba)

AZAROA

20tik 22ra	**Amaia Zalduegi (zapatu goizean, J. Otxagabia)**
23tik 26ra	**Lon Apraiz**
27tik 29ra	**Javier Otxagabia**
30ean	**Amaia Zalduegi**

ABENDUA

1etik 3ra	**Amaia Zalduegi**
4tik 6ra	**Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon praiz)**
7tik 10era	**Javier Otxagabia**
11tik 13ra	**Lon Apraiz**
14tik 17ra	**Hiart Burgoa**
18tik 20ra	**Amaia Zalduegi (zapatu goizean, J. Otxagabia)**
21etik 24ra	**Lon Apraiz**
25etik 27ra	**Javier Otxagabia**

APRAIZ.....630 05 50 97 ZALDUEGI.....669 26 22 01
OTXAGABIA..689 58 57 59 BURGOA..... 667 33 88 90

MANUEL
ARRIZABALAGA AGIRREGOMEZKORTA
Goian Bego
Eskerrik asko eman zenigun guztiarengatik

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 5

Herri osoaren aurrean adierazi nahi duzuna adierazteko txokoa

bidali zure idatzia:

kalaputxi@topagunea.com

edo

Luardo etxea, behea, buzoian

EUSKALDUNOK BATUTA?

Gogoa joanda neukan, eta aspaldidanik nengoen erretiratuta eguneroko berriek sortutako zurrunbilotik. Hartara, Gasteizko Parlamentua osatzeko azken hauteskunde prozesua izan zenetik, gutxi, oso gutxi irakurri-entzun-ikusi dut politikaz. Interesa galtzeraino iritsia nintzen.

Hala ere, herriska erdi galdu batera joan ezik, zail da inguratzen gaituen mundutik, parte garen gizartetik berriak jaso gabe bizitzea. Eta neuk ere jaso dut gure herriaren egoera politikoaren berri.

Sei hilabeteko borondatezko erretirotik itzulita, lehendik nekiena berretsi ahal izan dut berriro: hemen bakoitzak bere astoari egiten dio arre.

Alde batera begiratu eta egunero-egunero ikusten dugu fronte espñolista euskaldunoi leporatu izan digutenari buelta eman eta gauza berbera egiten, bere interesen alde, jakina, euskaldunok bazter lagatzen, herri honek hartutako hainbat erabaki indargabetzen edota buelta ematen. Batzuetan, beste mundu batean bizi garela dirudi, duela zortzi hilabetetatik hona herrialdea aldatu izan baligute bezala. Hain da bitxia gure Euskal Herria!

Gaitzesgarriak iruditzen zaizkit euskal gobernuan daudenen hainbat jarrera eta hainbat adierazpen. Arbuiagarriak ere bai euskaldunontzat. Erdi aroan sorginen bila zebiltzan moduan, gaur egun inkisidore berriak euskaldunon atzetik dabiltzala dirudi. Espainolak beti bila, beti euskaldunon atzetik, beti, lehen eta orain. Baina hori espero izatekoa zen. Espainolak elkarren ondoan, batzuk eta besteak, gidoia ondo-ondo idatzita eta lerro bat ere tokitik mugitu gabe, euskaldunok gure herrian arrotz sentitzen garen bitartean.

Beste aldera begiratu eta euskaldunak ikusten ditut, batzuk honuntz, beste batzuk haruntz, eta beste batzuk nora jo jakin gabe, bakoitza bere bidetik. Adierazpenetan ere, oraintxe gauza bat, bihar beste bat... Denok sentitzen ditugu gure aurkako erabakiak, jarrerak eta adierazpenak. Denok ikusten dugu gure herriko politika norabide berrian doala, hegoalderuntz begira jarrita dagoela. Baina modu ezberdinean hartzen dugu sentipen hori, nork bere estiloan, eta konponbide bateraturik aurkitu ezinik gabiltza. Behin batuko manifestazio batean, eta bertan batzuk haserretu!

Lagun batek behin esan zidan sozialistek guztientzako politika egiten asmatuko zutela, konfidantza izateko. Inozoa nire laguna. Guztientzako politika bai, baina español guztientzako, edo espainiazale guztientzakoa; ez, ordea, beren tesi nazionalistekin bat egiten ez dutenentzakoa.

Beste lagun batek esaten dit euskaldun guztiok batzen garenean ez dela izango indar españolik geldituko gaituenik. Nik horixe desio, noski, baina zail ikusten dut.

Bitartean, jarraituko dut pentsatzen egunen batean euskaldunok ziurrenik Orreagako gudutik dirauten gure arteko diferentziak eta inbidiak berdinduko ditugula eta berriz ere gure herriaren gobernura helduko garela, dauden lege espainiarretatik aske, gaur egungoetatik eta etorkizunean asmatuko dituztenetatik.

Eta, zalantzarik gabe, jarraituko dut pentsatzen egunen batean euskaldunok posible izango dugula gure Euskal Herrian euskaldun bizitzea, konplexurik gabe, aurretik gure hizkuntza jarrita, aurretik gure kurrikuluko edukiak ezarrita, hezkuntza sisteman eta eguneroko bizitzako alderdi guztietan, horixe baita bilatu eta lortu behar dugun normaltasuna.

Gaur egun hori ez da posible, eta hurbileko etorkizunean gauzak ez dira hobetuko. Ea bidea egiten hasten garen, hausnarketa eta eztabaida prozesu egoki batetik abiatuta.

Andiko

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 6

ESTRESARI AURREA HARTU NAHIAN

Urrian zehar Berdintasun udal zerbitzuak antolatuta, emakumeei zuzendutako antiestres tekniken ikastaroa izan zen Zabielen. Bi orduko lau saiotan bertaratutakoek erlaxazioaren bitartez antsietatea eta estresa prebenitzen ikasten jardun zuten.

Antolatutako ikastaroaz galdezka jo dugu udal berdintasun zerbitzuko teknikari Nerea Altxurengana, astearteetan goizeko 9etatik 14ak arte udaletxean izaten dena, eta ikastaro hori antolatzearen arrazoiez galdetu diogu.

Nereak adierazi digunez, zerbitzuan zehaztutako helburuei begira antolatutako ikastaro honek emakumearen autonomia eta emakumearen ahalduntzea sustatu nahi izan du. Ahalduntzea feminismo anglosajoitik datorren kontzeptua da (empowerment) eta emakumea maila indibidualean eta maila kolektiboan indartzea bilatzen du gizartean duen egoera aldatzeko.

JABEKUNTZA

Ahalduntzea bilatzen duen bide horretan, jabekuntzaren estrategia landu nahi izaten da, hitzak berak adierazten duenez, emakumearen egoeraz jabetzeko eta orduan egoerari aurre egiteko tresnak jasotzeko.

Sentsibilizazioarekin eta formakuntzarekin batera, jabekuntzarena ardatz-lerrotzat hartzen da, hainbat eta hainbat jarduera horri begira jarrita. Estresari aurrea hartzeko ikastaroa ekintza horietako bat izan da. Erlaxazioa, komunikazioa, sexualitatea... arlo asko dago lantzeko jabekuntza lantzeko modukoak. Horrenbeste lan dago egiteko!

Eta jabetu gauza askotaz jabetu daitekeenez, eremu bat aukeratu da: Egungo gizartean gero eta maizago ematen den estres egoera. Zehatzago, estres egoera horren jakitun bihurtu geure burua, ondoren neurriak hartzeko.

ESTRESA

Emakumea lan merkatuan sartu zenean, egoera berri batean murgildu zen. Etxeaz arduratzetik, etxeaz arduratu eta kanpoan lan egiteaz arduratzera pasatu zen, eta horrek antsietatea eta estresa sortarazi zuen.

Ez da kasualitatea emakumea izatea antsietatea, depresioa eta horrelako gaitzak pairatzen dituzten gehienak. Eta zenbat estres kasu egongo den ezkutuan, isilean gordeta... Egoera horretara eramaten duten iturburu asko dago.

Estresa, askotan erdi txantxetan ahotan erabiltzen den estresa, gaisotasun izateraino iritsi liteke gainditzeko neurriak hartu ezean. Puntu horretara helduta, noski, medikuarenera jo beharra izango litzateke, baina, beste gai askotan bezalaxe, aurrez prebentzio neurriak hartzea gure esku egon daiteke.

Eta lehenago esan den moduan, prebentziorako lehenengo puntua da jakitun izatea, estresaren eraginpean gaudela jakitea. Horretarako, asumituta eta oso barneratuta ditugun gauza askori buelta eman beharko zaie. Horixe da hasiera. Eta jarraitzeko, teknikak.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 7

ESTRESARI AURRE HARTZEKO TEKNIKA BAT

Estresari aurre egiteko teknika bat baino gehiago dago, eta beherago horietako bat aurkezten da, aproba egiteko modukoa:

Ezer baino lehen, giro lasaian, erdi ilunpean, lurrean etzan eta...

ERLAXAZIO ALDIA

1. Hartu arnasa sakon eta poliki, hiru aldiz, sabelaldea puzten dela sentituz.
2. Arreta oinetara bideratu. Somatu dimentsio osoan. Imajinatu eta hasi sentitzen zure oinak gero eta astunagoak direla. Ondoren, utziezu erlaxatzen.
3. Imajinazioa erabiliz, hanketan gora abiatu, eta alde guztiak somatu, erabat somatu. Ondoren, sentitu itzazu astun: orkatilak, izterrak, belaunak...
4. Jarraitu mokorretan gora, ipurmasailak, genitalak, sabelaldea, eta gerria lehengo moduan sentituz.
5. Jarraitu bizkarrean barrena, sorbaldak, besoak, eskuak...
6. Ez estutu, denbora hartu eta soma itzazu astun, eta nola erlaxatzen diren...
7. Jarraitu lepoan barrena, buru-azala, aurpegia, gorputzaren barrualdea...
8. Berriz ere hartu arnasa sakon eta poliki hiruzpalau aldiz, gorputza erlaxatzeaz gozatuz.

IRUDIKAPEN ALDIA

9. Irudika ezazu zure gorputza inguratzen duen haize leun eta gardena...
10. Arnasaren erritmoan sar ezazu haize hori zure bularrean zure antsietatea lasaitu arte.
11. Eraman haize baketsu hori zeure bururaino, eta senti ezazu nola lasaitzen dituen buruko tentsioak.
12. Zabal ezazu haize argitsu hori lasai-lasai burutik beherantz oinetaraino eta senti ezazu gorputz osoan zehar.
13. Goza ezazu haizeaz zeure barruan, eta sentitu berpizturik, garbi, fresko...
14. Hala erabakitzen duzunean, utziozu haizeari zure oinetako beatzetan barrena ihes egiten, eta hasi behatzak poliki-poliki mugitzen.
15. Berreskuratu poliki-poliki giharren, muskuluen mugimenduak, nagiak astindu, luzatu, egin aharrausi, eta egin barre, azkenik begiak zabaldu arte.

Hasieran baino askoz erlaxatuago somatuko duzu gorputza, eta estres maila ere askoz ere baxuago.

Lehenengo aldian ez da arrakasta lortuko, baina behin eta berriz egindakoan.... Egin aproba! ✘

“estres egoera gainditzeko horren kontzientzia izan behar da

“estresa ez da isilik gorde beharreko kontua, aurre egin beharrekoa baizik

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 8

GUREIZA FABRIKAN ZAIN

Euskarazko produktuen katalogoa banatuko zaie ikasle mutrikuarrei

Udaleko euskara eta kultura batzordearen ekimenez, aurtengoan ere euskarazko produktuen katalogoa banatuko zaie San Miguelk ikastetxeko, Goizeko Izarra Ikastolako eta Institutuko DBHko ikasleei, Euskal Herriko hainbat herritakoei bezalaxe.

Liburuxka horren bitartez, euskaraz argitaratzen diren produktuen aukera egoki bat jaso da, eta horren inguruko informazioa –argitaletxea, prezio tartea, hartzailearen adin egokia eta abar–. Horrela, etxeko umeak eta gaztetxoak euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko, eta gozatzeko gurasoek kontuan har dezaten ere balioko du katalogoak.

Zortzi ataletan dago banatuta liburuxka: musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika, eta jostailu eta jokoak. Gainera, interneten bitartez www.katalogoa.org helbidean ere kontsulta daiteke.

Gabonak hurre ditugunez, hortaz opariak elkarri egiteko ohituraren garaia, kontuan hartzekoa izan daiteke ikasleek etxera eramango duten liburuxka hau. Emaiozue begiratu bat, aukeraketan lagungarri gertatu ahal zaizue eta. ✘

Ondarroako Etxebizitza Tasatuak erosi ahal izango dute mutrikuarrek

Etxebizitza guztiak saldu ez direnez, Ondarroako Udalak Kamiñalde-Iturribarri kalean dituen bost etxe aterako ditu zozketara, eta Lea Artibaiko herritarrek eta Mutriku zein Debakoek izango dute bertan parte hartzeko eskubidea.

Etxebizitzak 79,66 eta 84,39 metro koadro artekoak dira eta 22,76 metro koadroko garajea eta 3,60 eta 4,61 metro koadro bitarteko trastelekuak dituzte. Etxerik merkeenak 258.059,20 euro balio ditu, eta garestienak 272.249,98 euro. Etxebizitzak eta euren garaje eta trastelekuak babestutako etxebizitza moduan izendatuta daudenez, kalifikazio hori izango dute beti, eta udal-ordenantzak zehaztutako gehienezko eskualdaketa-prezioaren eraginpean egongo dira beti. Horrez gain, lehenengo eta behin, udalak eta, bere ordez, autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak izango dituzte beti.

Eskabideak Ondarroako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal dira azaroaren 24a baino lehen (egun horretako 14:00ak arte). Eskabidearekin batera dagozkion agiriak ere aurkeztu beharko dira, euren artean urteko gutxieneko diru-sarrera haztatuak 9.000 eurotik gora eta 52.500 eurotik beherakoa egiaztatzen dutenak. Esleipendunak, gainera, azken 5 urteotan gutxienez 3 urtez Mutrikun edo lehen aipatutako udalerrietako baten errolldatuta egon behar izango dira. ✘

komikixa — josu ituarte “pitxame”



kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 9

GUREIZA FABRIKA BORROKAN

Lehenengo zurrumurruak izan ziren, gero aldaketa-zaratak, gero krisia... Kontua da Gureiza fabrikan aspaldidanik dabiltzala arazotan. Azken informazioaren arabera, etorkizunerako enpresa-proiektu berria planteatu da, gaur daudenak baino hogeita hamar bat langile gutxiago beharko lukeena. Eta kezka handitu egin da.

Enpresarioa, promotorea, udala, langileak... Batzarrak egin eta egin dabiltza aspaldian, baina informazio gutxi jaso ahal izan dugu oraingoz. Bizi dugu krisialdiak ere gelditu egin du abiatuta zegoen prozesua, itxura denez edozein erabakiren ondoren gureiza fabrikaren gaurko terrenoetan etxegintzarekin lotutako proiektu bat datorrelako. Enpresarioak erraztasunak nahi ditu, promotoreak kontuak nahi ditu, udalak konpromisoak eta bermeak, garantiak, nahi ditu, eta langileek lana egin nahi dute. Guztien nahiak bete beharko dira, gauzak ondo aterako badira.

Bitartean, langileek antolatutako ekimenetan herritarrek erantzun ona eman eta babes osoa agertu dutela esan behar. Azaroaren lehenengo zapatuan egindako kontzentrazioan euri jasaren azpian bildutakoek ondotxo erakutsi zuten. Han bildutakoek bat egin zuten langileen aldarrikapenarekin: Despidorik ez, negoziazioa bai. ✘

ANTZERKIAZ BLAITUKO GARA AURTEN ERE

Urte berri batez antzerkia izango dugu azpimarragarri azaroaren 13tik 29ra arteko asteburuetan. Ostiral gauetan herriko taberna ezberdinetan izango dira emanaldiak kafe antzerki formatuan, eta beste emanaldi guztiak Zabiel Jauregiko ganbaran hartuko dute lekua. Ohikoa denez, ikusle ezberdinek izango dute antzerkiaz gozatzeko aukera: haurrak, helduak, eta familiako guztiak elkarrekin. Berritasun bat dakar aurtengo egitarauak: bi egunetan berdintasunerako udal sailak antolatu dituela emanaldietako bi, bere xedea sustatze bidean.

Antzerki taldeei begiratuta, herriko taldeei eman nahi izan zaie protagonismoa, eta horrela Goizeko Izarra arituko da tabernetan eta azkeneko emanaldia ere berak beteko du Zabielen. Akelarre taldeak ez du hartuko parte, ez dutelako, oraindik, prestatzen ari diren obra taularatzeko moduan. Talde amateurrak izango dira, eta, baita ere, profesionalak: Markeliñe bere Mambrú obrarekin eta Maskarada taldea Souvenirekin aurre estreinaldian.

Zabieleko emanaldi guztiak arratsaldeko zazpietan izango dira eta tabernetakoak gaueko hamaiketan hasiko. Egitarauak etxe guztietara zabaldu ditu udalak. ✘

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 10

ETA BIHAR, ZER EGURALDI?

Sasoi batean, Atxukalera joan eta zaharrek, barometroari begiratu eta itsasoari karenka jarrita, esaten zutenari adi egon beharra zegoen hurrengo eguneko eguraldiaren berri jakiteko. Gaur asko aldatu dira gauzak, eta etxetik bertatik, leihorik ireki gabe, jakin dezakegu hurrengo egunetarako iragarpenen berri, eta, baita ere, denboraz atzeranzko datu pila baten jabe egin gaitezke.



Bitxiagoa oraindik, informazio pila hau Mutrikuri buruz atera daiteke. Interneten sartu eta www.meteoclimatic.com helbidean klikatuz eta Mutrikura zuzenduz, gure lagun Gotzon Eizagirrek zabaltzen dituen datuetara iristen da. Bertan aurkituko dira izan diren tenperatura, hezetasuna, presioa, haizearen abiadura eta norabidea, euri kopurua eta zaparradaren tamainak ordu bete bat lehenagora arte. Eta jakin nahi baduzu igarotako eguraldien berri, 2007 urte erditik gaur arterainoko grafikoak aurkituko dituzu. Animatu nahi genuke hemendik Gotzon iragarpenak egitera: saltsa politak izango lirateke arrandegian!

Aurkitu dugu, baita ere, Txirrist ezizenarekin, urte honetako martxotik Mutrikuko datuak ematen ari den estazioa ere: www.meteored.com/estaciones helbidean. Astebeterako, hamar egunerako, eta horrelako iragarpenak azaltzen dira beste leku batzuetan ere, baina orokorragoak direla ematen du, eta inoiz zeru estalia adierazten duenean eguzkia sartzen zaigu leihotetatik.

Ikusten denez, Atxukalera jo beharrik ez dugu gaur egun; egia esan, joanda ere, ez dugu aurkituko ez barometrorik, ez zaharrik eguraldiari begira. Eskerrik asko, euren zaletasuna dela eta, horrelako abantailak zabaltzen dizkigutenei. ✘

UDALAK ZERGA BATZUK IGOKO DITU 2010 URTEAN

Daukagun egoerari aurre egiteko ondasun higiezin, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergak, baita kiroldegiko zenbait prezio ere igotzea erabaki zuten azken udalbatzarrean.

Erabaki hori dela eta, datorren urtetik aurrera ondasun higiezinen zerga 0,217 euro izatetik 0,230 euro izatera pasatuko da, eta balio katastralari gehitu beharko zaio bakoitzak ordaindu behar duen kopurua ateratzeko. Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga %1 igoko da. Eta hiri-lurren zerga lehen %7an bazegoen, orain beste %1 igoko dute.

Kiroldegiko prezio batzuk mantendu egingo dira eta beste batzuk apur bat igo, horrek suposatuko duelarik %1 igotzea gutxi gorabehera. Gainerako zergak lehengo berdinean jarraituko dute, hainbeste kritikatua izan den zabor bilketarena barne. Hau ere garestitu egingo da datorren urtean, baina zerga igoera ekiditeko edukiontzi txikiak kendu eta, horien ordez, eduki ontzi handiagoak jarriko dituzte kostea berdina dutelako txikiek zein handiek. Zer eragin izango du erabiltzaileengan?

Udalbatzako beste alderdiek ontzat jo zuten proposamena, ezker abertzaleko taldeak ezik, zeinek azaldu zuen arazoaren konponketa, berriro, herritarren bizkarrera botatzen zela.

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

PIKUA
www.pikua.es
JATETXEA
LANDETXEA
apartamenduak
bezeroentzako
aparkalekua
eguneroko menua
berezitasuna txerri txikia
(enkarguz erreta, edo frijitua)
Laranga auzoa · Mutriku · Tel. 629105733 · luis@pikua.es

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 11

hitza
.info

Eskualdeko enpresek lau laguntza berri eskatzeko aukera daukate

Ekonomia » Azaroan itxiko den programa baten izan ezik, besteetan, izena emateko aukera zabalik dago abenduaren 31ra arte.

ASIER ALKORTA

Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak eskualdeko enpresei zuzendutako lau programen berri [illegible] izena emateko [illegible]



Interesatuek Debegesako webgunean jaso dezakete informazioa. HITZA

Egoeraz «nazkatuta» daudela esan dute Metec-Motric-eko langileek

Ekonomia » Herritarrei eskerrak eman dizkiete jasotako babesagatik, eta Udalari langileen alde egiteko eskatu diote.

ASIER ALKORTA

«Jada nazkatuta gaude hazkunde nahiz jaitsiera ekonomikoko garaietako paganoak izaten». Hitz horiekin beraien egoera zein den adierazi nahi izan dute Metec-Motric guraize lantegiko langileek. Bide horretatik, lantegiko arduradunei «mehatxuen aurrean» ez dutela burua jaitsiko esan diete, eta Udalari, lurrak birkalifikatu behar badira, enpresari lantokiko lanpostuak mantentzeko bermea eskatzeko galdegin diote.

«Enpresak, berriz ere, lurren birkalifikazi[illegible]en baldi[illegible]



Enpresako zuzendaritzak etxebizitzen proiektua geldituta egotearen errua proiektuaren sustatzaileari eta Udalari botatzen diela diote langileek. HITZA

ezaguna egiten zaigu». «Mehatxu politiketaz baliatuz», orain arte enpresak «etekin onak» eduki dituela [illegible]k. «Beti ere [illegible]

Espedientean daudela gaineratu dute. «Enpresako zuzendaritzak lan zama jaitsi [illegible]san zigun, eta EEE [illegible]ztailean, [illegible]

presari, eta bere erantzuna izan zen, enpresaren lekualdaketa egiteko arazoak tarteko, egun enpresa kokatzen den lurretan etxebizitzak egiteko proiektuak aurrera egiten ez badu, enpresaren bideragarritasuna kolokan dagoela.

EEEren kontsulta epea akordio gabe amaitu zen, eta Lan Delegaritzak EEE onartu zuen. «Beti egiten duen bezala, patronalaren mesederako eman zuen ebazpena». Egoera horren aurrean, langileek «argi eta garbi» salatu nahi izan dute Eusko Jaurlaritzaren jarrera. «Jaurlaritzak enpresarien interesak langileon interesen eta beharren gainetik ipini ditu».

Udalari eskaera

Udalari, lurrak bir[illegible]baditu, em[illegible]

Udalak geoparkearen estatutuak sinatu ditu, hautagaitza aurkezteko

Gizartea » Hautagaitza aurkeztuta, «ia ziurtatuta dagoen baiezkoaren» zain daudela adierazi dute hiru udalek.

ASIER ALKORTA

Debako, Zumaiako eta Mutrikuko udalek hiru herrien arteko gunea Geoparke izendatzeko hautagaitza aurkeztu nahi dute, eta horretarako, baldintza batzuk bete behar dituzte. Horietako bat geoparkearen estatutuak onartzea da.

Estatutuak onartu eta gero, hautagaitza aurkeztu eta erantzunaren zain geratuko dira hiru herriak. «Urteak atzera, bideragarritasun plan bat egin zen geoparkearen proiektuarekin, eta orduan, hiru[illegible]rian arte[illegible]

Berton egingo litzatekeen geoparkeak *flysch*-a edukiko luke gai bezala. G.G.

batean bi edo hiru hautagaitza aur[illegible]kezt[illegible]zegoen, baina na batzuk hasi dira hautagaitzak

«Oraindik lan handia dago egiteko. Orain hautagaitza aurkeztu dugu, eta onartzen badigute, lau urteko bideragarritasun plana aurkeztu beharko dugu. Arlo horretan gauza batzuk bete behar ditugu».

Herritarren bilerak

Herritarrekin edukitako batzarrak «oso aberasgarriak» izan direla gaineratu du alkateak. «Jendeak interesa daukala ikusi dugu, eta batzarretan parte hartu du. Printzipiz, gure asmoa, bideragarritasun planean ikusitako esparrura zabaltzea da. Interesa duten gainerako inguruko herriek baldintzak betetzen badituzte, gehitzeko aukera emango diegu».

Iñigo Agirrek, Berdeak alderdiaren izenean, geoparkearen ekimena «baikor» ikusten zutela[illegible]

Datozen hiru urteetan dikea luzatzeko konpromisoa hartu du Jaurlaritzak

Ekonomia » Dikearen proiektua egin ez ezik, igerilekua eta hondartza ere «ahalik eta arinen» egokituko dituztela diote.

ASIER ALKORTA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri-Lan eta Garraio sailburu Iñaki Arriolak Mutrikuko babes dikea amaituta egoteko falta diren 140 metroak eraikitzeko konpromisoa hartu du. «2011. eta 2012. urteetan dikea 434 metroraino luzatzeko lanek jarraituko dute. Irtenbide teknikoak tarteko, egungo dikea datozen proiektuetan zehaztuko dugun beste gaineko dike batekin osatuko dugu».

24 milioiko inbertsioa egin eta gero, babes dikeak hasiera batean izan behar zituen 434 metroak edukitzeko 14 milioi euroko bigarren inbertsio bat egingo du Jaurlaritzak. «Aurrekontu hori, aldiz, ez da nahikoa Mutrikuk arrantzaportu bat edukitzeko. Izan ere, hori lortzeko barne dike bat eraiki beharko litzateke; barne dike horrek 13 milioi euroko beste inber[illegible]

Urte bat baino gehiagoz proiektua geldituta egon denez, itsasoak apurketak ere egin ditu dikean. GARBIÑE GARAGARZA

Jaurlaritzako Sailak dikearen proiektu horri «irtenbidea bilatzeko esfortzua» egingo duela argitu du Arriolak.

Hondartza eta igerilekua

Ho[illegible]kea amaitu ez ezik, [illegible]

lioi gehitu behar zaizkio. «Dikea 434 metroraino luzatzeko lanek suposatzen duten 14 milioiko gainbertsioa ere gehitu egin behar da. Gaur egun dugun egoera ekonomikoan [illegible]proiektua [illegible]

ritzak, eta ondorioz, proiektua esleipena egiteraokoan aurrekotuan aldaketak egin behar badi[illegible]egin egingo ditugu».

Proiektua [illegible]ko arra[illegible]

Udalak hamalau aparkaleku saldu nahi ditu

Azpiegiturak » San Agustineko hamalau aparkaleku eta trasteleku bat erosteko deialdi berria zabaldu die herritarrei.

A. ALKORTA

San Agustineko aparkalekuak eta trastelekuak erosteko eskariak jasotzeko epea amaituta, Udalak lau aparkaleku eta trasteleku bat erosteko eskaerak jaso ditu. Baina sal[illegible]

San Agustineko aparkalekuak dauden eraikina. ASIER ALKORTA

tzeko daude gainontzeko hamalau aparkalekuak eta trasteleku bat, eta deialdi berria egin du herritarren artean.

Deialdi berriak badu orain arte eduki ez duen berezitasunik: eskaerak jaso ahala trastelekua eta aparkalekua esleitu egingo ditu Udalak. «Behin hamalau aparkaleku eta trasteleku bat erosteko eskaerak jasota, ez da egongo ezer saltzeko. Eskaerak jaso eta esleipenak momentuan egingo dituguu». Interesatuek ondoko hi[illegible]

tzak bete behar[illegible]lekua erostek[illegible]eta bere izene[illegible]edukitzea.

«Negoziorik

Halaber, espe[illegible]ere ez dela ego[illegible]«Izan daiteke[illegible]lau aparkalek[illegible]etortzea. Inor[illegible]teko gure neu[illegible]horrelako ego[illegible]

Binakako pala txapelketarako izena eman daiteke

MUTRIKU Azaroaren 8ra arteko epea ipini dute antolatzaileek, eta 13an batzarra egingo dute 2

Lan berria argitaratu aurretik, The Wet Band talde mutrikuarrak lagunarteko kontzertua eskaini du Zubiaram tabernan; lokala herritarrekin bete da.

«Etxekoa» eta lagunartekoa

ASIER ALKORTA

Argi gutxi eta jende asko. Horrelaxe hasi zen barriku gaua Zubiaram tabernan. Musikak elkarturik, afalostean ohi baino jende gehiago batu zen tabernan. The Wet Band talde mutrikuarrak lagunarteko kontzertua antolatu zuen bertan.

Gutxi ziren tabernako atetik sartu eta estu-estu egin da barrura arte heltzen zirenak. Barruan, lehen bilarra zegoen lekuan, momentura ko ipinitako agertoki bat zegoen.

22:30ak jota, jendea kontzertua noiz hasiko zain zegoen. Eta talde mutrikuarrak ez zuen hutsik egi[illegible]

Argi gehiago itzali eta lehenengo doinuak entzuten hasi ziren lokalean. Ikusle guztiak isilik. Adi-adi barrura begira.

Pare bat nota behar izan zituen taldeak giroa berotzeko. Argiak altxatzen joan eta Ainara Etxearte taldeko abeslariaren ahotsa ere gero eta ozenago entzuten hasi zen.

Abesti zaharrak ez ezik, berriak ere ondo asko ojo zituen taldeak. Eta hori gutxi balitz, Tina Turnerren abesti baten bertsioa ere aireratu zuen The Wet Band-ek.

Bertaratuta[illegible]koak kontzertua ten. «Giroa, taldea... dena zegoen ondo».

Taldekoen iritzia

Ikuslegoa gustura geratu zen bezalaxe, taldeko kideak ere «pozik» geratu zirela diote. «Abesti berriak entsegatzen ibili gara uda osoan, eta kontzertua eskaintzeko gogo asko geneukan. Zubiaramen etxean bezala sentitzen gara, eta horregatik aukeratu genuen. Eta horrela izan zen».

Jendeak ondo erantzun zuela diote taldekideek, eta gerora taldeak aurkeztuko duen lan berriri be[illegible]

The Wet Band-eko taldekideak, bariku gaueko emanaldian. ASIER ALKORTA

terik ez dituztela egin gaineratu dute.

Beste behin ere, Mutrikuk eta mutrikuarrek musikarenganako [illegible]tasuna agerian utzi[illegible]

dute. «Giro onarekin eta musika onarekin», The Wet Band-en hurrengo emanaldia entzuteko «irrikaz» geratu ziren bertaratu ziren [illegible]tiak.

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

Harpidedun egin eta
hitza etxean jasotzeko
deitu telefono honetara:
902 82 02 01

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 12

“BANUA TXIRI-TXARA TXORITXARA”

Eztabaida beroak sortzen dira ehizaren aldeko eta kontrako iritzia dutenak elkartzen direnean. Aldekoek eskubide bezala defendatzen dute, baita kirol edo aisialdirako ekintza gisa, eta baserritar batzuek ingurunea mantentzeko beharrezkoa dela ere aipatzen dute, kalteak sortzen dituzten populazioak kontrolatzeko, batez ere hemen, Mutriku inguruetan, basurde ehizarekin lotuta, hauen populazioa gehiegizkoa izan ez dadin. Aldekoak ez direnak, aldiz, ehiza etikaren aurkakoa eta ingurunearen kalterako dela defendatzen dute, agian, ehizak edo ehizatzeko modu batzuek izugarrizko hondamendia dakartelako. Oraingo honetan, bizitza osoa ehizari lotua daraman Pedro Agirrezabala Amutxastegi (1946) Azpikua baserriko ehiztariarekin jarri dugu hitzordua eta bere esperientzia eta iritziak kontatu dizkigu.

Nola hasi zinen ehizan, Pedro?

Jaio orduko gure aita zenarekin ezagutu genuen ehiza mundua, bera baitzen gure auzo honetan ehiztari trebea. Hamar bat urterekin edo again lehenago porkatxarekin hasi ginen. Porkatxa batzuek goma beltza izaten zuten eta besteek gorria, batzuentzat lehenak hobeagoak eta beste batzuentzat, aldiz, besteak. Erabiltzen genituen harriak ere aukeratu egiten genituen, eta baita urkuluak ere. Eta etxean gomarik aurkitzen ez bagenuen, herriko Agerretxo zapateruak emanda lortzen genituen, eta azkenetara bizikleten kamera zaharrak ere aprobetxatu izan ditugu.

Gogoan daukat, burdinazkoak ere agertu zirela, baina ez ziren hain onak; egurrezkoak, niretzat behintzat, hobeagoak. Norberak mendian aukeratu eta norberaren gustora egiten genituen. Garai haietan egunean hamalau bat txori botatzen nituen porkatxarekin. Orain baino txori gehiago ikusten ziren: Pagandak, txirtak, zozoak, usoak, kalandriak, hegaberak, tortolak...

Baina txoria hemen azaltzeko negua behar du izan eta horrez gain jana ere beharrezkoa da. Porkatxak erabiltzeaz gain, alanbrezko tranpak ere erabiltzen genituen, baina askoz gutxiago. Elurra egiten zuenean, aldiz, irina pasatzeko galbahea hartzen genuen. Garai haietan edozein baserritan edo etxetan aurkitu genezakeen tresna hau. Zeukan forma borobila oso aproposa zen hau makilatxo bat jarrita zutik mantentzeko, azpian usoarentzat janaria jarri, eta txoria azpian sartutakoan soka batekin tiratzen genuen txoritxoa harrapatzeko.

Noiz hasi zinen eskopetarekin? Noiz lehenengo tiroa?

Komunioa egin nuenean, bederatzi urterekin, hamabikoarekin.

Hemen inguruetan zer ehizatzen zenuten?

Oilagorrak, zozoak, usoak… baina gehinbat oilagorrak, agian nire gustuko txoria delako. Arno tontorra erre zen urtean, hain zuzen ere gurutze ingurua erre zen urte hartan ibili nintzen ni oilagorretan, sasoi honetantxe, azaroaren lehenengo egunetan. Egunero-egunero ekartzen nituen nik bi edo hiru etxera. Gogokoen dudan ehiza horixe da oilagorrena. Egun baten zazpi ekarritakoa naiz!

Gaur egun ikusten al da oilagorrik?

Aurreko urtean asko. Hala eta guzti, garai baten bezain beste ez. Orduan txori gehiago ikusten ziren, adibidez tortolak, baita mendioiloak ere. Dena ezkutatu da. Eperrak ere baziren hemen. Orain badirudi girorik ez duela egiten. Lehenago haize epeletan uso pase ederrak ikusten genituen Debaldetik.

Janagaitik iruditzen zait usoak Frantzia aldean gelditzen direla, artoa, pipak... dauden lekuan gelditzen dira. Neguan hauek goi aldetik beheruntz datoz, baina hor gelditzen dira.

Eta, garai haietan joaten al zineten erbestera ehiza egitera?

Extremadura aldera joaten ginen, otxozientosian gehiene-

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 13

tan, baina urte baten seizientosian ere joandakoak gara. Bi txakur, lau lagun, arropak aldatzeko… Eta dena sartzen genuen kotxe txiki haietan.

Eta, noski, bueltatzerako orduan, ehizatzen genuen guztia: eper, mendioilo, ahate, oilagor, erbi... Basurdetan eta azeritan ere ibiltzen ginan.

Zein txakur mota izan dituzu lagun?
Txakur mota gogokoenak seterrak ditut. Azkenekoz, hala ere, pointerra izan dut, zuri beltza, Eder izenekoa, oso ona. Oilagorra topatzeko, txakurra gerturatu orduko gelditu egin behar da. Azken txakur honekin, urrian hasita, 60 oilagor ekarritakoa naiz ni.

Zein garai da egokiena ehizan ibiltzeko?
Oraintxe, pase sasoia orain da.

Gaurkoak bezalako ehiza posturik ikusten al zen?
Hori gaurko moda da, nik diru batzea deitzen diot. Mutrikun ez da ordaintzen honelako postuetan egoteko, baina bai adibidez Itziarren.

Lehengo ehiztarien eta gaurkoen artean alderik ikusten al duzu?
Orain ez dago benetako ehiztaririk, bakarren batzuk again bai, baina eskopeteroak gehiago dira. Kotxearekin Apainera, Ormolara, edonora gerturatu eta pauso gutxi egin eta tiro asko. Jendeak orain abusatu egiten du, tiro egin bai, baina batzuk txoria jasotzera ere ez dira joaten.

Lehengo ehiztariek kartutxoak lortzeko oraingoen erraztasunik ez, ezta?
Orduan tiroa eta kartutxoak asko aprobetxatzen ziren. Bi tirokoekin ibiltzen ginen, gaur egun bostekoak izaten dira, nahiz eta legez hirukoak dauden onartuak. Bi tirotik golpean bostera aldatu zuten, baina atzera berriz hirukoak daude onartuak. Guk urte mordoa egin genuen 70eko kainoiarekin, nahiko luzea dena. Soldadutzatik etorri eta erosi nuen nik etxean dudan hau.

Kartutxoak zein motatakoak erabiltzen zenituzten?
Ehizatzera goazenaren arabera. Nik neuk kargatzen nituen etxean kartutxoak. Kartutxoak behin tira ondoren berriro azala gorde egiten genuen hurrengoan erabiltzeko. Orain dik etxean ditut kartutxoak ixteko beharrezkoak diren tresnak. Perdigoiak ere bai, etxean ditut.

> **eskopetak ez ditu galduko mendiko animaliak; pozoiak gehiago galtzen du**

> **gaur egun, batzuk tiro egin ostean txori bila ere ez dira joaten**

Tiroa nola zabaltzen zen ikusteko, adibidez oilagorretarako, paper bat jartzen genuen aurrean, honi tiro egin eta hor ikusten genuen perdigoiak nola zabaltzen ziren, horren arabera gehiago kargatzen genuen edo gutxiago. Polbora ere neurrian jarri behar da, batez ere oilagorretarako, txori mota hau oso biguna baita.

Entzun dugu sasoi baten plater tiraketan ere trebe ibili zinela...
Plater tiraketan baino gehiago Pitxoien tiraketan ibilitakoa naiz ni, baditut lehenengoko sari batzuk etxean Itziarren, Eskoriatzan... ateratakoak.

Eta plater tiraketan, agian mutrikuar askok ez dute jakingo hau egiten zenik ere baina, *Conde de Motrico*-ren kopa etxera ekarritakoa naiz. Samikoilan egiten zen, Burumendiko gainaldean, mutrikuar batzuek antolatuta. Ondoren, Kalbaixon hasi ziren egiten.

Zer esango zenieke ehizaren aurkakoei edo zaleak ez diren pertsonei?
Eskopetak ez duela galduko pristixia (mendiko piztiak), ezta txoria ere. Eskopeta zarata bai ibiltzen da, baina ez dakit zer botatzen duten, zarata bai. Gaur egun txoria gehiago galtzen da pozoiarekin. Gariari eta landareei botatzen zaien beneno edo pozoia jan ondoren hiltzen dira animalia gehiago ehizagtuta baino. ✘

Pedro Agirrezabala Amutxastegi

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 14

AINTZANE BASTERRETXEA, *musikari barruraino sartzen utzita*

Santa Zezilia eguna gainean dugula-eta, musikarekin lotutako herritar batengana jo dugu: Aintzane Basterretxea. Musika irakaslea izateaz gain, Musika Eskolako zuzendaria, piano eta organo jolea, zenbait abesbatzaren zuzendaria, opera zalea, eta komunikatzailea ere bada irratian. Nahikotxo ikasketa, titulazio eta merituren jabe den arren, ez dira horiek izan gure elkarrizketaren hildo nagusiak, bizitzan benetako garrantzia duten gaiez aritu gara: esentziaz, krisi-espiritualaz,... eta musikaz, jakina.

2006an izan zuen etenalditxoaz aritu zaigu hasieratik.

Bizitzako egoerak dira, eta gu egoera horren ondorio bat. Horrek eragina izan du ondorengo gauza guztietan. Normaltasunez hartu behar dira gauza horiek guztiak; azkenean, horien ondorio gara. Horrek ere bere eragina izan du beste historia guztietan, eta horrexek irakatsi dit garrantzitsuak diren gauzak bereizten. Urte hartan, oso krisi-espiritual gogorra izan nuen, baina onurak ekarri zituen nire bizitzan. Ezin izan nuen musika-nota bat bera ere entzun, ezin nuen ez CD bat ez irratirik ipini. Urte hartan, ez nien gusturik hartzen egiten nituen gauzei, iluntasuna osoa zen. *"Nola liteke?"* galdetzen nion neure buruari. Konturatzen nintzen beti ohituraz egiten nuena, etxera ailegatu eta musika ipintzea, esate baterako, ezin nuela egin. Ez nuen tekla bakar bat ere sakatu garai hartan. Urtebete lehenago, hamar mila gauzatan sartuta nenbilen, eta nekea ere handia zen. Egia esan, zorte handia izan nuen: laguntza eskatu nuen eta eman egin zidaten. Poliki-poliki hasteko aholkua eman zidaten. 2006ko bukaera aldean, abesbatzekin hasi nintzen poliki-poliki. Eta horrela, Gabonak aldera-edo hasi nintzen, eta etxera joan eta musika jartzen ere hasi nintzen. Eskerrak gurasoek, anaiek eta gertuko lagunek emandako maitasunari. Momentu latzak izan ziren, krisi-espiritual bat izan zen, horixe izan zen. Deitu ahal zaio *depresioa*, *estresa* edo *antsietatea* argot medikoan, baina krisi-espirituala izan zen, norberaren desoreka. Norberaren esentziatik asko urruntzen zarenean, desoreka sortzen da. Baina hori etortzea ez da txarra, horrek eboluzio bat ekartzen du, eta hortik ateratzen duzuna da inportantea. Norberaren burua maite eta orekan bizi. Lehentasunak jakin behar dira. Interesgarria eta aberatsa izan da prozesu hori guztia.

Eta musikaz.

Musika soinua da eta soinua mugimendu baten bidez sortzen da, bibrazioa da, mugimendua, eta bibrazioa desberdina da soinu tresnaren arabera. Unibertsoa mugimendua da, beste gauza askoren artean; orduan, esan behar da musikak, guk nahi ala ez, eragina daukala guregan. Gustatuko zaizu estetika konkretu bat edo musika tresna zehatz bat, baina hori kulturala da, gehien entzun duzun hori gustatuko zaizu-eta. Musikaren hizkuntza unibertsala da, bibrazio horiek gure gorputzean eragina daukalako, denongan. Musikara iristeko aukera eman egin behar diozu zeure buruari. Batzuetan, joaten zara kontzertu batera eta ez dizute ezer transmititzen, baina zerbait eragiten dizutenean, eta pentsarazten dizutenean, gauza handia da, eta batzuek badaukate genialidade hori. Musika aidean dago, hartu egin behar da. Musika ez da hizkuntza bakarrik, askoz gehiago da. Gauza kuriosoa gertatu zitzaidan 2005ean, Madrilen nenbilela ikastaro bat egiten. Maisuak Tchaikovsky-ren musika jarri eta mugitzeko esan

> **"giza harremanak pertsonaren esentziaren parte dira**

zigun. Momentu hartan, tokiz kanpo sentitu nitzen eta *"Bueno, zertan ari zara hemen?"* esaten nion neure buruari. Entzutea neukan oso maisu ona zela eta horrexegatik joan nintzen; beraz, bertan nengoenez, momentua bizi eta aprobetxatzea erabaki nuen. 14-15 minutuko mugimendua zen. Burua joan egiten zitzaidan. Baina begiak itxi eta musikan zentratzea lortu nuenean, musikarekin harremana eta bizipenak izateko, zoragarria izan zen derrepentean, ezer egin



Aintzane, New Yorken, Carmen opera entzutera joanda.

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 15

musika ez da ulertu behar, sentitu egin behar da

inoiz bukatuko ez den prozesua da ikaskuntza

beharrik gabe, sentitu besterik ez zen egin behar. Musika ez da ulertu behar, sentitu egin behar da, laga egin behar diozu barrura sartzen. Zuk borondatez, edo kulturaz, edo sentsibilitatez lortuko duzu musika horretan barrura sartzea, edo, ez; baina hori ez da inoren meritua. Bestalde, bide luzea ere izan daiteke hori lortu artekoa. Zuk, agian, momentu horretan ez daukazu gaitasunik musika horretan barrura sartzeko, edo izan daiteke zuk zeuk ez uztea musikari barrura sartzen, beldurra-edo daukazulako, eta itxi egiten zarelako. Hori ez da kontzienteki gertatzen, eboluzio hori falta zaizu, eta ez zara barrura iristen. Bizitzan beti ematen da eboluzio hori, eta nik eskertzen dut etenaldi hori egin izana. Askotan esaten da: *"Ez diot inori desio!",* baina zer esango dizut, ba; nik eskertzen dut, nik ez dut gauza txar bezala ikusten, kontsideratzen dut gizakiak zenbat eta bizipen eta esperientzia zabalagoa izan, orduan eta hobe; eboluzio hori eman egiten da, eta, horren arabera, gizatasun edo humanidade hori lortzen duzu eta islatzen duzu zeure inguruan. Baina horixe da gizartea, horixe da mundua; unibertsoa eta bere esentzia, azken finean. Nik ez nekien esentzia zer zenik ere desorekara iritsi arte, ez nekien zer zen garrantzitsua (pianoa jotzea?...). Momentu hartan ezerk ez zeukan inportantziarik; han beste gauza bat zegoen: nire esentzia guztiz desorekatuta.

Eta musika munduan izandako ibilbideaz aritu zaigu.

Umetan bitxoa nintzen. Oso jakinmin handikoa gauza guztietan. Egia esan, musikarekin lotutako kuriosidadeak ziren, oso bizia nintzen. Bizitasun horren zati handi bat galdu egin zen, eta horrek ere desoreka sotzen du. Txikitan, Zizilioreki ibili nintzen parrokiako abesbatzean, Paco Arrietarekin solfeoan, Joakin "Txiki"rekin txistua ikasten, Mari Carmen "Xipri"rekin pianoa ikasten, —urtebeterik ere ez zen izan, hil egin baitzen— gero, Ines Landerasekin hasi nintzen pianoa eta musika-ikasketak egiten. Inesekin urte asko eman nituen, oso harreman handia geneukan, laguntza handia ematen zidan. Eta hortik Konserbatoriora joan nintzen eta *Piano, Organo, Musikologia, Musika Mintzaira* eta abar ikasten hasi nintzen. Beti gustatu izan zaidan gauza izan da ahotsaren kontua, eta beti ibili izan naiz koruetan-eta. 1991. urtean Musika Eskolan hasi nintzen lanean, baina, horrekin tartekatuz, beti jarraitu izan dut ikasten, bukatzen ez den gauza da hori. Musika-ikasketak eta Musika Eskolako proiektua uztartzen nituen, lana baino gehiago proiektua baita niretzat. Gero, hor hasi nintzen Operaren munduan, eta hori zorte handia izan zen. Nire lehen opera *Carmen* opera izan zen, New Yorken. Ezin esandakoa izan zen, inpresionantea! Mundu horretan sartu nintzen, "Lieder" alemanak ikasten hasi eta garai horretan egon nintzen bi urte Madrilen ikasten Felix Lavillarekin, estatu mailan zegoen piano jolerik onenetakoa, Teresa Berganzaren laguntzailea eta senarra izandakoa. Bi urte haiek oso oparoak izan ziren teknikoki eta espresio mailan, gogorrak ere bai exigentzia mailan. Bi urte haietan kontzertuak, ikasketak eta Musika Eskola uztartu behar izan nituen. Orduan hasi nintzen Komendura joaten bertako organista gaixotu zenean, herriko abesbatzari ere laguntzen nion, Markinakoari ere bai… Aukerak izan ditut esperientzia desberdinak bizitzeko musikaren inguruan, giza harremanak izateko eta horien artean ematen den komunikazioa izateko; hori oso aberatsa da. Gauza askotaz hitz egin ahal izateko lagunak dauzkat eta oso zorteko sentitzen naiz. Giza harremanak pertsonaren esentziaren parte dira eta ni oso aberatsa naiz alde horretatik, eta ez dira batere errazak; gehienbatean, ez ditugulako errazten.

Musika sortzeari buruz, berriz, hauxe esan digu.

Sormen hori, batetik, ez dut landu. Partitura bat aurrean daukazunean, konpositore batek utzitako lana daukazu aurrean, baina beste guztia zeuk ipintzen duzu. Beste arte-diziplinetan ez da horrelakorik gertatzen, lanak bukatuta daude-eta (kuadroak, eskulturak,... autoreak utzi dituen bezala daude). Musikan, berriz, ez da horrela izaten, partiturak interpretatu egin behar izaten dira-eta, eta, zenbaitetan, autoreak berak interpretatukoak baino gehiago gustatzen zaizkigu. Sormen edo kreazio horretan ez dut behar hori sentitu; benetan behar hori sentitu izan banu, horretara dedikatuko nintzatekeen, eta buru-belarri. Baina hori sentitu ez badut, horrek esan nahi du hori ez zela nire bidea, nire bidea komunikazioa zela.

Azkenik, irrati bidezko komunikazioa hizpide hartuta.

Euskadi Irratirako gauzatxo batzuk prestatzen ari naiz. Konpositore bakoitzaren bizitzari buruzko kontuak jakitea gustatzen zait: zergatik egin duen estetika konkretu bat, edota bere humanidadeari buruzko kontuak eta historiaren testuingurua. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendariak deitu zidan proiektu batean eurekin lan egiteko, euren kontzertu eta proiektuen berri emateko Euskadi Irratian. Saio informatiboa eta didaktikoa da aldi berean. Komunikazio mailako beste mundu interesgarri batera eraman nau horrek. Arratsaldez egiten dugu, *Arratsaldekoa* saioan, Arantxa Iturberekin, eta zuzen-zuzenean!

Aintzaneren gustuko esaldi honekin bukatuko dugu, Maria Victoriaren hitzak hartuta: *"Eman eskerrak bizitzari; hori egiten duzunean, ez dago beldurrik!".* ✘

Aintzane Begoña Abaituarekin Munich-en, "Lieder" entsegu baten ondoren.

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 16

Mutrikuarrak ameriketara "pateran" joan zirenekoa

Ikurrina popan eta Venezuelako bandera brankan zehazkatu zuten Ozeano Atlantikoa

ARGIA astekariak bere 2.205 alean kontatzen du nola gerra zibilak milaka lagun bultzatu zituen Pirinioak gurutzatzera, eta haien egoera kontzentrazio zelaietan Bigarren Munduko Gerra aurreko giro ozpinduan. Euskaldun batzuek arbasoen marinel senari jarraitu zioten, eta, haien artean, patera itxurako bi ontzitxok ozeanoan barrena egindako bidaia miragarria kontatzen du.

Ontzitxo horiek Baionako ontziolan egindako *Donibane* eta *Bigarrena* ziren, biak berdinak: egurrezko kroskoa, 14 metro luze eta 2,5 metro zabal. Ontzi bakoitzean zortzi errefuxiatuk osatzen zuten eskifaia. Edo hala uste zuten. Izan ere, lehendabiziko gauean sorpresa galanta izan zuten *Bigarrena*ko tripulatzaileek sototik ezkutuko bidaiari bat agertu zitzaienean.

1939ko abuztuaren seian, arratsaldeko seietan, Baionako kaitik atera ziren Frantziako bandera mastan zutela. Aturriko barra gainditu orduko euskal ikurrina eta Venezuelako bandera jarri zituzten, bata brankan eta bestea atzeko aldean, beraien koordenada geopolitikoak agerian utziz. *Bigarrena* ontzian Jose Maria Burgaña mutrikuarra zuten kapitain, eta hiru egun behar izan zituzten Kantauri itsasoa atzean lagatzeko, arrantzaleen ohiko guneak eta merkatal ontziak saihestuz, Europatik urruntzen joan ziren. Lehen lehorreratzea Dakarren egin zuten, Burgañak idatzitakoa kontuan hartuta, 3.242 mila eginak zituzten 13 egun eta 10 ordutan, orduko 6,97 miliako abiadurarekin, hain zuzen.

Hortik aurrera, Atlantikoa bere handitasunean. Erronka horri aurre egiteko bi egun igaro zituzten lehorrean, beharrezkoaz ongi hornitzeko. Ordura arteko arrantza ugalduz joan zen eta ontziek, nahiz eta matxura pare bat eduki zuten, eutsi egin zioten bere egin beharrari. Ameriketatik Europatik baino gertuago zeudenean, irratien bitartez irailaren lehenean jakin zuten Mundu Gerra hasi zela.

Handik gutxira, Tobagoko itsasertzetik igaro ostean, Ameriketako lurretan lehorreratu ziren, Rio Caribeko badian. Venezuelan zeuden, eta Cumanatik barrena, bi egun beranduago, euskaldunentzako portu ezaguna izan den La Guairara iritsi ziren Burgañaren mariñelak. Euskaldunek denboran atzera egin zutela zirudien. ✘



kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 17

Egunkaria libre!

SEI URTE LUZE eta oraindik amesgaiztoak ez duela bukaerarik dirudi. 25 lagun pasa ziren Juan del Olmo epailearen aurretik, horietatik 10 auzipetuta daude. Bi sumario dira martxan, sumario nagusia eta ekonomikoa. Auzitegi Nazionaleko hainbat epailek salaketa egiteko oinarririk ez aurkitu arren, aurrera doa auzia. Fiskalak ere sobreseimendua eskatu arren, aurrera doa auzia.

Bultzada politikoa dago *Egunkaria* kasuaren atzean, eta urteak pasa ahala kriminalizazioaren zantzuek hortxe diraute.

Itxuraz, Euskara sustatzea delitua da, euskara sustatu izanaren errudun dira, euskal kultura sutsuki sustatu izanaren errudun dira, euskal komunikabidegintzan gartsuki jardun izanaren errudun dira… Bai. Baina Euskara sustatzeak, euskal kultura sustatzeak ez ditu ETAko bihurtzen, tesi polizialak eta akusazio popularrak baieztatzen duten moduan.

Babes zabala jaso dute urte hauetan guztietan, milaka herritarren babesa jaso dute urte hauetan guztietan. Erakundeen babesa ere jaso dute: Babes Taldeak, Europako Parlamentuko hainbat parlamentarik, Eusko Legebiltzarrak, Batzar Nagusiek, Eusko Jaurlaritzak hiruzpalau bider, Espainiako Erresumako Gorteetako 61 diputatu eta senatorek. Baina, hala ere, akusatuen aulkian eseri beharko dute eta oso litekeena da sententzia kondenatorioren bat egotea.

HITZALDIA
auzipetuetako baten eskutik
azaroak 25
7,30 h. zabielen
MUTRIKUN

Egoera latz honen aurrean zerbait egin behar. Azkeneko asteetan euskal zinemako hainbat lagunek, musikariek eta disketxekoek, kirolariek, politikariek, bertsolariek, idazleek eta argitaletxeko ordezkariek, abokatuek eta legegintzan dihardutenek…

Herrietan laguntza batzordeak hasi dira eratzen, epaituei babesa emateaz gain auzi honek sortu eta eragingo dituen gastu ikaragarriei aurre egiteko.

Kanpaina honetan auzipetuen hitzaldiez gain, mahaiak jarriko dira egunkariaren aldeko kamisetak eta bonoak saltzeko. Baita ere, herriko talde desberdinen atxikimendua eta babesa eskatuko zaie Euskaldunon Egunkariarekin bat egin nahi duten guztiei.

Behar-beharrezkoa dute gu guztion laguntza. Gure ahaleginek eta indarrek ez dakigu eraginik izango duten Auzitegi Nazionalean, baina "Geu ere Egunkaria garelako" borroka honetan parte hartu behar dugulakoan gaude. ✘

***"Egunkaria libre"* lelopean mahaiak jarriko dira laguntza ekonomikoa eta sinadurak biltzeko. Ahal dena, dena beharko da.**

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 18

OIHANA KORTAZAR nonnahi txapeldun!

Oihana eta kirola aspaldiko bikotea dugu. Betidanik egon dira biak elkartuta. Mendizaletasunaz gain, txirrindularitzan ere aritu izan da urte luzez. Korrikazale izanik, duatloiak egitea erabaki zuen elgetarrak, eta hala aritu da mendi lasterketei heldu artean.

Kirola beti izan du lagun Oihanak...

Umetatik ikusi dut etxean kirol zaletasuna. 18 urtera arte ibili nintzen txirrindularitzan anaiarekin batera, aitak zaletasun handia zuelako. Unibertsitatean hasi nintzenean, utzi egin nuen. Batzuetan mendira joaten nintzen eta beste batzuetan bizikletan, gogoaren arabera. Ondoren, mendi talde batean federatu nintzen eta sarritan joaten nintzen Pirinioetara, mendiak egitera. Forma mantentzeko, berriz, korrika egiten nuen eta ia konturatu gabe duatloiak egiten hasi nintzen. Duatloien denboraldia bukatu eta duela bi urte Arnoko Lasterketa egitea bururatu zitzaidan. Esan dezaket hauxe izan nuela mendi lasterketen hasiera. Handik aurrera nire kasa ibili nintzen, nik aukeratutako lasterketetan hartzen nuen parte, ikusitakoaren arabera entrenatzen nuen, inoren gidaritzarik gabe. 2008a hala joan zen aurten arte. 2009an nire kontura hasi eta bigarren lasterketa egin nuenean, hango emaitzak ikusi ondoren Euskal Selekzioak deitu zidan eta harrez gero entrenatzaile batekin aritzen naiz, bere babesean.

Kiroletik bizi ez, baina modu profesionalagoan...

Ezin kiroletik bizi, lana egiten dut eta nire denbora librea dedikatzen diot kirolari. Niretzat betiko diziplina izan da kirola egitearena. Egun, Selekzioaren egutegiaren arabera aritu behar dut. Badakit nahi ditudan lasterketa guztiak ezin ditudala egin, baina…

Denboraldia bukatu da...

Aurten Espainiako Kopako denboraldian aritu ondoren azken aurreko lasterketa bitartean lehenengo postuan izan naiz. Azken lasterketan ez dut parte hartu lesio batengatik. Espainiako Txapelketan, berriz, txapelduna izan naiz. Euskadiko Kopako lasterketa guztiak ezin izan ditut egin, asko Espainiakoen egun beretan zirelako, baina ahal izan dudanetan parte hartu dut. Bat izan ezik beste guztiak irabazi ditut, baina guztiak egin ez ditudanez, Euskadiko Kopako sailkapenean hirugarren gelditu naiz.

Espainiako Txapelketan egon ondoren Europakora joateko aukera eskaini zidaten eta Italiara joan nintzen, Dolomitetara. Ez nuen helburu zehatzik eraman. Banekien lasterketa gogorra izango zela, baina esperientzia eduki nahi nuen. Bi motatako lasterketetan aritu nintzen: Kilometro bertikalean, hirugarren postuan geldituta, eta 22 kilometroko lasterketan, bosgarren geldituta.

Kilometro bertikala...

Hitzak dioen bezala aldapa desnibel handiko lasterketa motzak dira, 2 kilometro eta 200 metrotan 1000 metroko

Oihana, kilometro bertikalean.

VITALICIO SEGUROS
Andonegi Asesoría
Erdiko kalea, 3 behea - Tel.: 943 60 39 05 - Mutriku

ARRIETA AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 19

umetatik landua dut gorputza, baina gorputza ez ezik burua ere zaindu eta hezi behar da

elikaduraren aldetik ere asko zaindu behar da: zenbat eta arinago jan, hobeto

desnibela izan dezakezu. Nik 45 minutu egin nuen distantzia honetan, lau hanketan ere ibili behar izanda esaterako; jaitsiera ere oso arriskutsua zuen: alde batetik harri soltea eta amildegiak beste aldean. Oso gogorra egin zitzaidan.

Gustura…

Bai, emaitzak ikusi ondoren gustura lasterketa bertikalarekin, baina beste lasterketarekin ez hainbeste. Ibilbidea ez zitzaidan hainbeste gustatu. Bestalde, bezperan elurra egin zuen, pentsa! elurra uztailean!, neguko eguraldia, izotza, hotza… eta gu ez ginen prestatuta joan. Ez nuen gustura egin korrika eta bukatzeko desiratzen nengoen. Bukatu eta gero haserre nengoen neure buruarekin. Espe-

Oihana, helmuga zeharkatzen, lehenengo postuan.

rientzia bizitzeko oso ondo egon zen, eta horretarako balio izan dit.

Gogoko lasterketa bat…

Espainiako Txapelketan gustura ibili naiz. Ez nuen espero irabaztea, oso urduri joan nintzen esperientziarik ez nuelako. Castellonen izan zen. Goizeko 6etan hasi zen lasterketa, beroagatik. Pentsa, goizeko 9etan bukatu nuenean, 30 gradu zeuden. Hasiera-hasieratik lehenengo postuan joan nintzen, eta halaxe bukatu nuen lasterketa. Oso gogoan dut Zumaiako Flichen lasterketa ere, polita izateaz gain inguruaz disfrutatzeko aukera ere izan nuelako.

Eta gehien sufritu…

Denetan sufritzen duzu zerbait, denak dira desberdinak. beroa delako ez bada, aldapa handia dagoelako… hotza... euria… jaitsieretan gaizki pasatzen dut, ez naiz-eta horretan oso abila. Dolomitetan asko sufritu nuen jaitsieran, denbora guztian frenatzen, tentsioan, lekua oso arriskutsua zelako eta ondo nahi nuelako bukatu.

Kirolariak beti lesioen mehatxupean…

Ez da lesio larria. Eguneroko bizimodua egiteko ez dit arazorik sortzen, baina bai kirola egiteko. Mokorreko inflamazio bat da, baina atsedenarekin eta zaintzarekin etorriko naiz neure onera. Lasterketek desgaste handia dakarte, kirol gogorra baita gurea. Dena den, ondo zainduta gaude, hiru hilabetero analisiak egiten dizkigute, oso kontrolatuta gaude.

Kontrolak aipatu eta doping-a gogora…

Txapelketa ofizialetan egiten dizkigute dopingaren aurkako kontrolak. Irabazitako Espainiako Txapelketan egin zidaten, badakizu egingo dizkizutela eta ez diozu garrantzirik ematen.

Aurrera begira…

2010ean ere Selekzioan jarraitzeko eskatu didate eta hala egingo dut. Antzeko denboraldia izango dela uste dut. Bestalde, atsedena hartzeko gogoa ere banuen, oso nekatuta bukatu baitut bai fisiko aldetik bai sikologikotik. Eta datorrenerako ondo errekuperatuta egon nahi dut.

Kalaputxik ere horixe desio dio Oihanari. Animo eta jarraitu orain arteko indar eta ilusio berberekin. ✘

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 20

BERTSO PAPER SARIKETAK 25 URTE

Egunsentia

Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena
1999ko 1. saria
Doinua: Ikusten duzu goizian

1
Gau sotil baten ondare
Goiz argiaren aldare,
Lerden, zirats eta nare,
Eguzki eta ilargiaren
Besarkadaren zutabe,
Keinu amoltsuen sare,
Bizipen xaloen labe,
Ezin dut etsi zu gabe.

2
Urratzen hastean gaba,
Ezerezaren baitara,
Ortziratuz begirada,
Argi hauskorra eztimamituz
Gustura egoten gara,
Oroiloreen zirrara,
Egunaren lehen taupada,
Gure bihotza zu zara.

3
Arginabarra aieru,
Izadiaren eredu,
Nonahi goza zaitzakegu,
Erlantz gardenez bustiz itsaso,
Mendi hegal eta zeru,
Ameslarion sosegu,
Berdin uda eta negu,
Beti zure zain gaude gu.

4
Birigarroa kantari
Pinpilinpausak dantzari
Loretan lizar ugari,
Hostail nabarrak ihintzez bustiak
Ta errekastoak garbi,
Ametsa ametys atari,
Zuz era ororen kabi,
Itzalik gabeko argi.

5
Arrosa eta morea
Hodeiertzeko lorea,
Mendi gainean gordea
Langile loti eta nagien
Paregabeko goldea,
Oilarra baino hobea,
Esentzia dotorea,
Laburregia ordea.

6
Naturaren hasperena,
Aratza eta gardena,
Barne bizipen gorena,
Arghi-ilun ta ilun-argien
Lotura eta etena,
Nekearen atsedena,
Horixe da zu zarena,
Hitzik gabeko poema.

7
Aralar eta Aizkorri,
Zeru zapia oskorri,
Sorgin laratza jatorri,
Fereka eta laztan gozoak
Ai dizkiguzu igorri,
Inspirazio iturri,
Beti zahar, beti berri,
Lehen muxu, azken irri.

8
Goizero etengabeki,
Lurra xeratuz emeki,
Zeinen otzan, zeinen ezti,
Zure kriseilu urreztatua
Lau haizetara ireki,
Natura zugan etxeki,
Osasuntsu jarrai beti,
Bihotzeko egunsenti.

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:03 Página 21

EGUNSENTIA

Sormenari eskaini nizkion nerabezaroko ordurik gehien-gehienak, ipurdia egongelako besaulkiari itsatsi eta arratsaldeak orrialde zuri-beltzen konpainian igarotzen nituen egun batean bai eta hurrengoan ere bai, poema eta ipuinak ontzen inoiz, bertso jarriekin tematuta ia beti. Nire ibiliaren lagin egokia dira Okelar Bertsopaper Lehiaketan saria erdietsi zuten bertso sortak. Gizarteko, naturako, bizitzako on-gaitzek hartaraturik, ahulenekin, babesgabeenekin bat egin eta justiziaren, berdintasunaren, bakearen, ingurune osasuntsuaren aldeko aldarri bihurtzen nituen nola esatekoak hala idaztekoak. Nafarroako baso-erreketan barrendu, begi-belarriek bildutakoa liburu eta komunikabideetako xehetasunekin uztartu eta Itoizko urtegiaren paretak lehertzen ahaleginduko nintzen, baita alkoholak otsotutako gizonari eta gizonaren tratu txarrak jasan behar izan dituztenei laguntzen ere, bihotzetik bihotzera. Salaketa ukiturik gabe, bizitzari, egunaren sorrerari, egunsentiari ere egin nahi izan nion gorazarre, gaiari pare-parean zetorkiola iritzita, bertsoak Ikusten duzu goizean doinuan paratu nituenean. Atseginez oroitzen ditut urtean behin, sarien aitzakian, egiten genituen joan-etorriak, idatziz ez ezik bat-batean aritzen ginenontzat saria bera adinakoa baitzen bazkalostean Azpillaga, Okelar eta Mutrikuko Bertso Eskolakoen konpainian kantari aritzearen gozoa. Itzuliko naiz Mutriku, itzuli nahi nuke Okelar!

Ekaitz Goikoetxea
1999, 2000, 2001 eta 2002ko txpelduna

Behar dugulako behar gaitu

Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena
2002ko 1. saria
Doinua: Lagundurikan danoi

1 Behinola bizi ginen
alai ta gustura
familia elkartu
gehienen modura;
alkoholak ekarri du
oraingo haustura,
izan ere gugandik
asko urrundu da,
umetan aita deitzen
nion gizon hura.

2 Arindu nahian bere
bihotzeko minak,
gauez zapaltzen ditu
taberna izkinak,
lagun hartuz betiko
edari jakinak:
patxaran eta whisky
marka ezberdinak,
etxeraino iristen
dira zipriztinak.

3 Begiak zuri eta
burua galtzori,
odola ere jartzen
zaionean gori,
sarri isurarazi
dizkio malko bi
parean harrapatzen
duen edonori,
bere hitz egiteko
modua da hori.

4 Etxeratzen denean
serio serio,
amaren gorputzari
dardara dario;
ez diosal, ez agur
ta ez murmurio,
isiltasun mutura
biltzen da propio,
hitzak ere beldurra
eragiten dio.

5 Lo orduak eskainiz
amets baten truke,
inoiz izarak izan
zituzten zerupe,
gaur garai hura pozik
berrituko nuke,
amildegi bat sortu
baita urtez urte,
lehen larrua ta orain
elkar jotzen dute.

6 Masaileko, ukabil,
burla ta iraina...
hori da eguneko
lanaren ordaina,
gu infemuan bizi
gara alajaina,
indarra badut aurre
egiteko haina,
buruak ulertzeko
eskatzen dit baina.

7 Hasieran izango
ziren hiru trago,
denbora pasa ahala
gero ta gehiago;
burutu arren hainbat
ekintza arraro,
lehoiaren pareko
zantzuez harago,
gorrotoak jandako
maitasuna dago.

8 Gainditzeko egungo
morrontza zitala,
eskainiz behar duen
babes ta magala,
aurrerantzean egin
nahi dut eginahala,
bihar ez bada etzi
umetan bezala,
harro esan dezadan
aita bat dudala.

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:04 Página 22

eskola 2.0 programa abian da herriko ikastetxeetan

Mutrikuko ikastetxeetan, Euskal Autonomia Erkidegoko beste ikastetxeetan bezalaxe, Hezkuntza Sailak Eskola 2.0 programa sustatu nahi du ikasturte honetan. Programa honi esker, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak, ikasgela digital bilakatuko dira. Aldaketa hori egiteko, Lehen Hezkuntzako 5.mailako ikasgelak arbel digital batez eta irakasle zein ikasleentzako eskuko ordenagailuz hornituko dituzte. Maila honetako ikasle bakoitzari ordenagailu txiki bat banatuko zaio, oinarrizko softwarea instalatuta dutela, eta gelan bertan ordenagailua uzteko eta kargatzeko apaltxo bat izango dute.

Eskolentzat aldaketa handia izango da, bai ikasleentzat bai irakasleentzat. Liburuak ondoan ditugula, ordenagailua ere behar den moduan erabiltzeko gai izan beharko da aurrerantzean. Baina, prest al daude ikastetxean aldaketa honi aurre egiteko? Argi dago pixkanaka-pixkanaka lortuko dela, baina, datak gainean eta prestakuntza bat jasotzeko beharrean gaude, aldaketa honek guztion lana eskatzen baitu, bai gurasoena, irakasleena, ikasleena, zentruena...

Irakasleen prestakuntza, Berritzeguneetako IKTeko koordinatzaileen esku dago. Tutoreek, ingelerako irakasleek eta 5. mailan aritzen diren PTek jasoko dute bereziki. Trebakuntza, batik bat, praktikoa izango da, ikasgelan teknologia digitalak erabiltzeak sor ditzakeen arazo teknologiko eta didaktikoei buruzkoa. Horrez gain, software libreko programa eta aplikazioei buruzko trebakuntza ere jasoko dute.

Honen guztiaren berri emateko Mutrikuko ikastetxeetara jo eta Goizeko Izarra eta San Miguel ikastetxeetako IKT arduradunekin izan gara.

ESKOLA 2.0 PROGRAMA IKASTOLAN ETA SAN MIGUELEN

Zer iruditzen zaizue Hezkuntza sailak onartu eta martxan jarri duen Eskola 2.0 programa?

Goizeko Izarra: Teknologia berriak aldaketa sakonak eragiten ari dira hezkuntza sistemaren barneko arlo guztietan: metodologian, komunikazio esparruan, kudeaketan... Aldaketa hauei aurre egiteko azpiegitura egokiak behar dira, ikastetxea osatzen dugun guztion formazioa eta prozesu pedagogikoen egokitzapena. Eskola 2.0 programaren ezarpena presaka egindako ezarpena dirudi eta, itxuraz, alderdi garrantzitsu bat kontuan hartu gabe: prozesu pedagogikoen egokitzapena.

> **eskola 2.0 programa presaka egindako ezarpena dela dirudi**

San Miguel: Oraindik ez gara balorazio bat egiteko gai, informazioa falta zaigulako. Behin martxan jartzen denean eta gauzak ondo egiten badira, eguneroko praktikotasunak eta horrek ekarriko duen metodologia aldaketak adieraziko digu programa honen baliogarritasunaren maila.

Programa horren bidez Lehen Hezkuntzako 5. kurtsoko gelak digitalizatuko dira. Zeintzuk aldaketa egin beharko dituzue zuen geletan? Zein material berri jasoko dituzue?

GI: Proiektorea, ikasleentzat ordenadore eramangarriak, eramangarrientzako gurdia eta tutorearentzat, ingeleseko

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748391
kalaputxi@topagunea.com

OKINDEGIA POTERO
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:04 Página 23

irakaslearentzat eta PTarentzat eramangarri bana jasoko ditugu. Gelan ez dugu aldaketarik egin behar izango.

SM: Badirudi, jasoko dugun materiala honako hau izango dela: ume bakoitzeko ordenagailu eramangarri bat eta gelarako arbel digitala, proiektorea, armairu berezi bat ordenagailuen bateriak kargatzeko eta gordetzeko, eta WIFI sarea.

Irakasleek prestakuntza berri bat jaso beharko dute. Nortzuek jaso beharko dute?

GI: 5. mailako tutoreak, ingeleseko irakasleak eta PT-ak jasoko dute prestakuntza ikasturte honetan zehar, astean bi orduz Eibarko Berritzegunean.

SM: Esaten dutenez, 5. mailako irakasle batzuei zuzenduko zaie prestakuntza. Hala eta guztiz, badira urte batzuk ikastetxeko irakaslego guztia IKT arloan formazioa jasotzen ari dela, multimedia eta interneteko errekurtsoak, web orria, mantenimendua, eta abar. Ildo honetatik jarraituz, aurtengo ikaturtean arbel digitalaren erabilerari buruzko formazio saioak izango ditugu. Formakuntza proiektu bezala onartu digute eta hirugarren hiruhilekoan landuko dugu.

Zer suposatuko du formakuntza horrek ikastetxearentzat?

GI: Ordutegiak egiteaz arduratzen den ikasketaburuak formazio saioen arabera moldatu zuen ordutegia hasiera-hasieratik, beraz, ez dugu arazorik izan.

SM: Orain arteko formakuntza saio gehienak bezala, hau ere haurren ikastorduetatik kanpo izango da; bestalde, irakaslego guztiaren partehartzea erraztearren, ikastetxean bertan jasoko dugu formakuntza hau.

Eta, daukagun materiala (liburuak,...) eta metodologia programa honekin bat al datoz? Ala dena aldatu behar da?

GI: Zalantzarik barik egokitu egin beharko gara, baina darabilgun Txanela proiektuak IKT konpetentzien garapena sustatzeko elementu berriak eskaintzen ditu. Txanela proiektua osatzen duten unitate guztien ohiko jarduerei dagozkien fitxekin batera, IKT konpetentziak garatu ahal izateko hainbat IKT jarduera proposatzen dugu.

SM: Irekita gaude berrikuntza hauetara, baina honek ez du esan nahi orain artekoa baztertuko dugunik, era kritiko batean aztertuko ditugu aukera guztiak eta baliogarrienak erabiliko ditugu.

Orokorrean, ikastetxea, ikasleak eta baita gurasoak ere prest al daude horrelako aldaketak jasotzeko? Behar den bezala informatuta al gaude?

GI: Hasieran aldaketa guztiak izaten dira gogorrak eta egokitzeko denbora behar izango dugu baina lasaitasunez hartuz gero, probetxuzkoa izango delakoan gaude.

SM: Orokorrean prest gaudela iruditzen zaigu, baina informazio aldetik hutsune asko daude, ez dakigu noiz jasoko ditugun, zein baldintzetan, zein izango den ordenagailuen jabea, nor arduratuko den... ✘

> **Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak ikasgela digital bilakatuko dira**

> **berrikuntzetara zabalik gaude, baina orain artekoa baztertu gabe**

ELORRETA, S.L.
ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA
Asier Lersundi
680 579 961
Kepa Martinez
617 842 004
San Agustin 4B · MUTRIKU · Tel. eta Fax 943 604 397 · elorretaeraiketak@gmail.com

koadrila afariak, bazkariak, bataioak,
eguneroko menua
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN
MUTRIKU

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:04 Página 24

ZORION AGURRAK

AIUR

Segi beti bezalako xalau dagoeneko 2 urte beteta. Muxu handi-handi bat aita, ama, aitxona, amona eta osabaren partez.

NATXO

Zorionak aitite! Aurten kopako finalik ezin dizugu oparitxu... baina igual uefakoa bai! Matxo asko Jonek, Leirek eta Enekok.

LEIRE

Aupa gure Leire! Dagoeneko 13 urte... Euki prest belarrixak, hamalau teinkada hartzeko! A! Enekok oparixa listo daka!

ANA MARI

Zorionak Ama, zorionak amona! Orain bai, oraingoan gure danon partez, matxo handi-handi bat!

hitza

HITZA

6 urte ia egunero-egunero etxerainо herriko eta inguruetako notiziak ekartzen. Hori bada zoriontzeko arrazoia! Zorionak!

ITZIAR

Urriaren 21ean urtebetetzea izan zenuenez, Zorionak etxeko guztion partez!

AURO

Urte berri bat... Zorionak hortaz! Eta ospa dezagun... urte guztian zure konpainiarekin!

NEREA

Zorionak etxeko neska politari. 11 muxu eta besarkada zure 11. urtebetetzean. Ondo-ondo pasa. Aita, ama eta Jon.

MARIA LUISA

Zorionak amona Maria Luisari bihotz-bihotzez danon partez, baiña bereziki maitxe-maitxe deuen Aritzen eta Izaron partez.

NAGORE eta ANE

Zorionak Nagore! Zorionak Ane! Zorionak familixa osuaren partez eta plazako danon partez ere bai! Datorren urtian berriz txokolatadia, bai?

AGURTZANE

Zorionak, amona, urte berri bat bete duzulako.
Eneko, Leire, Erlantz eta Eñaut

IZADI

Zorionak gure etxeko larrosatxuari lehenengo urtea betetzean. Birramonak eta etxekuak.

ANE

Zorionak zure hirugarren urtea betetzean. Izadik eta familiak.

zer da? non dago?



EREINTZA, SAIOA IRATI eta NEREA

Hamaika Zorion eta 11 teinkada belarritik udazkeneko lore-sorta polit honi!

NEREA

Zorionak zure urtebetzean, eta segi horrela, hamaika saltsari ikutu berezia ematen!

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:05 Página 25

Argazki Zaharrak

Gazte koadrilla Itxas Gain soziedade gaineko balkoian, 1943 urte inguruan

Ezker-eskumiñ: Itziar Galparsoro, Carmen Sustaeta, Begoña Lezertua, umetxoa Ana Mari Lezertua, (...), Jesus Ituarte, Angeles Sustaeta, Romualdo Sustaeta, Lolita Sustaeta, Jospa Ituarte, Maritxu Ituarte, eta Ramonita Sustaeta

Amona taldia bazkarirako prest, Kalbaixoko taberna zaharrian

Karmen Sustaeta "katxas", Maria Elezgarai "apala", Juanita Belaustegi "katxerua", Eugeni San Martin, ..., Salome Arreitunandia, Miren Lore Andonegi, Maria Luisa Urrutia, Mari Tere Osa, Julita Alberdi, Maria Saizarbitoria, Tomasa Arkotxa eta Sole Uranga "zumaiarra".

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:05 Página 26

KALAPUTXI egiten parte hartu nahi baduzu, deitu 635748393ra. Gustura hartuko zaitugu!

udazkeneko EKITALDIAK

MENDI IRTEERAK'2009

Abenduak 13 Deba inguruak.

BURUMENDI, ARTIBAI, AURRERA, LUMENTZA, ETA BURDIN KURUTZ MENDI ELKARTEEK ANTOLATUTA

ODOLA EMATEKO EGUNAK'2009

Mutrikuko odol emaleen elkarteak antolatuta

abenduak 19, 18:00etan

ABENDUROCK

ABENDUAK 4, BARIXAKUA

.....kontzertu akustikoa Zubiaranen

ABENDUAK 11, BARIXAKUA

.....kontzertu akustikoa Subeltzen

ABENDUAK 18, BARIXAKUA

.....rock kontzertua Goiti Beheran

ABENDUAK 4, ZAPATUA

.....rock kontzertua Gaztetxean

AZAROA.....

.....ANTZERKIAZ BLAI.....

azaroak 20, barixakua
Kafe antzerkia
Goizeko Izarra antzerki taldea
23.00; Miruaitz eta Subeltz

azaroak 21, zapatua
Birusak erasoan
Toni la sal eta txotxongiloak

azaroak 22, domeka
Gezurrezko printzea
Txirene antzerki taldea

azaroak 28, zapatua
Souvenir, historiako kantaririk txarrena
Maskarada Antzerki Taldea

azaroak 29, domeka
Tiririnahastea
Goizeko Izarra antzerki taldea

bonoak turismo-bulegoan eskuragarri

azaroak 25, eguaztena
Egunkaria aurrera!
Hitzaldia, Egunkaria auzian auzipetuekin
Zabielen, 19.30etan

azaroak 27, barixakua
Zine Forum
Frozen River (Ibai izoztua)
Berdintsasun udal zerbitzuarekin bat
Zabielen, 23.00etan

ABENDUA.....

abenduak 19, zapatua
Santo Tomas azoka
Abereen eta barazkien feria

Gabon kontzertua
Parrokian, 20.30etan

abenduak 24, eguena
Olentzero

ERAKUSKETAK

JOSTUNEN ERAKUSKETA
Zabielen
azaroaren 16tik
abenduaren 6ra

MENDIKO ARGAZKIAK
Burumendiko bazkideenak
Luardon
azaroaren 23tik 27ra

ARGAZKI ERAKUSKETA
Hirigunea lehen eta orain
Zabielen
abenduaren 9tik 31ra

GURE AMETSA DANTZA TALDEA

Dantza ikastaroan parte hartzeko izena eman Santo Tomas egunerako

zoriontzekokontatzekokexatzekodeitzeko
zoriontzekokontatzekokexatzekodeitzeko

KALAPUTXI

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:05 Página 27

artizar

fisio lan taldea

San Agustin, 10 behea MUTRIKU

943 603 655

masajeak baino askoz ere gehiago

Egunkaria libre!

Egunkaria libre!

Munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria libre** munduan bizi ahal izateko

www.egunkaria.info

auzi nagusia

Joan Mari Torrealdai

Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
Zigor eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa

Txema Auzmendi

Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko idazkaria
Zigor eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa

Iñaki Uria

Egunkaria SAko kontseilari ordezkaria
Zigor eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa

Martxelo Otamendi

Egunkaria-ko zuzendaria
Zigor eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa

Xabier Oleaga

Egunkaria-ko erredaktoreburu izana
Zigor eskaera: 12 urteko espetxealdia eta 14 urteko inhabilitazioa Dignidad y Justiciaren eskaeran; 14 urteko espetxealdia AVTrenean

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.

Industrialdea Mijoa, s/n. P - 2.1 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) - ESPAÑA Telf. 943 - 60.31.41 / Fax. 943 - 60.44.39

E
12.00.566/SS
C.E.

kalaputxi 89.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 17/11/09 12:05 Página 28